



Zumaia Udala

UROLA ITSASADARRA BABESTEKO ETA MANTENTZEKO PLAN BEREZIA

<AURREKONTSULTETARAKO DOKUMENTUA>

2012ko ekaina





Zumaiaiko Udala

<AURREKONTTSULTETARAKO DOKUMENTUA>

UROLA ITSASADARRA BABESTEKO ETA MANTENTZEKO PLAN BEREZIA



2012ko ekaina

Zuzendaritza teknikoa:

Zumaiaiko Udala

Ayuntamiento de Zumaia

Lantaldearen zuzendaritza eta koordinazioa:

Ekolur Ingurumen Aholkularitza

Ekolur Asesoría Ambiental SLL

Lantaldea:

Ekolur Ingurumen Aholkularitza - Ekolur Asesoría Ambiental SLL

Pedro Areta Morondo - biologoa

Tomas Aranburu Calafel – Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa

Nerea Egia Larrinaga – Ingurumen Zientzietan Lizentziatua

Ane Felipe Díez - Ingurumen Zientzietan Lizentziatua eta Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa

mmej arkitektura - Mikel Mikel Eguzkiñe Javier arkitektura SLP

Mikel Azkona Uribe - arkitektoa

Mikel Larratxe Berazadi - arkitektoa

Eguzkiñe Aldazabal Ortueta - arkitektoa

Javier Puldain Huarte – arkitektoa

mirua 21

Itziar Eizagirre Irureta - abokatua

Patxi de Assas Yagüe- abokatua

Aurkibidea

1	AURREKARIAK.....	1
2	SARRERA.....	2
3	UROLA ITSASADARRA BABESTEKO ETA MANTENTZEKO PLAN BEREZIA.....	3
3.1	PLAN BEREZIAREN HELBURUAK	3
3.2	PLAN BEREZIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA	3
3.2.1	Plan Bereziaren aplikazio eremua.....	3
3.2.2	Plan Bereziak antolatuko duen eremuaren deskribapen orokorra.....	4
3.2.3	Plan Bereziaren jardukerak: Ekintza Planaren jarduera ildoak	4
4	PLAN BEREZIAK ERAGINDAKO EREMUAREN INGURUMEN DIAGNOSTIKOA.....	6
4.1	UROLAKO ESTUARIOA	6
4.2	PADURA EREMUAK.....	7
4.3	DUNEN SISTEMA.....	10
4.4	ESTUARIO EZ BESTE INGURUAK	10
5	ESPERO DAITEZKEEN INGURUMENAREN GAINEKO ERAGIN NAGUSIEN IDENTIFIKAZIOA	13
6	PLAN BEREZIAREN ERAGINA HIERARKIA-MAILA HANDIAGOKO PLAN EDO PROGRAMENGAN	14
7	ESKATUTAKO INFORMAZIOA	16

1 AURREKARIAK

Zumaiako Udalak 142/2012 alkatetza dekretuaren, 2012ko martxoaren 6koa, bidez “Urolaren itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Berezia” landu eta idazteko laguntza eta aholkularitza lanak egiteko zerbitzu kontratua Ekolur Ingurumen Aholkularitza enpresak aurkeztutako lantaldeari esleitzea erabaki zuen, aipatu enpresako teknikariek, MMEJ arkitektura estudioak, Patxi de Assas hirigintzako abokatuak eta Mirua 21 parte-hartze publikoaren ardura duen enpresak, osatzen zutena.

Ingurumen-eraginari buruzko Azterketa Bateratua (aurrerantzean IEAB) 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak¹ arautzen du, zeinak 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra garatzen duen, plangintza-prozesuaren lehenengo faseetan, planek ingurumenean izan dezaketen eraginaren analisia sartzeko helburuarekin. Aipatu Dekretua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/42/CE Arteztarauean, plan edo programa jakin batzuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzkoa, oinarritzen da.

Gerora indarrean jarri da plan edo programa jakinek ingurumenean duten eraginaren azterketari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legea, estatu mailako oinarritzko lege gisa, aurretik zegoen legediak duen helburuekin bat eginez.

183/2003 Dekretuak 3. Artikuluan zehazte du IEABren aplikazio-eremua. IEAB prozedura jarraitu behar duten planen artean lurzoru urbanizaezinean eragina duten Plan Bereziak ageri dira.

183/2003 Dekretuaren 6. Artikuluaren eta 9/2006 Legearen arabera, Planaren sustatzaileak –Zumaiako Udalak- Urola itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Bereziaren Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostenak (IIT) jaso behar duen informazioaren hedapenari eta zehaztasun mailari, baita azterketa hau egiteko interesgarritzat jotzen duen beste edozein informazioari buruzko kontsulta egin behar dio ingurumen organoari.

Honako dokumentu honek Urola itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Bereziaren hasierako aurkezpena egiten du –Planaren aplikazio eremua, Planaren aurretiazko helburuak, Planak eragingo duen eremuak egun duen egoeraren deskribapena eta karakterizazioa- eta Planarekin espero daitezkeen eraginen lehen identifikazio bat egiten du. Dokumentu honek nahikoa beharko luke Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak Plan Bereziaren IIT zein hedapen, xehetasun eta zehaztasun mailarekin idatzi behar den esaten duen “Erreferentzia Dokumentua” igorri dezan.

¹ 183/2003 Dekretua, 2003ko uztailaren 22koa, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duena.

2 SARRERA

Bere ibilbidearen amaieran, Plan Bereziaren eremuarekin bat etorritz, Urola ibaiak meandro zabal bat itxuratzen du eta ibilgua itsasadarraren bi alboetako hegalean geratzen da, estuarioaren azkeneko zatian itsasora zabaltzeko baino lehen. Guztiz gizatiarturik egonagatik ere, esparru honek kalitate eta bakantasun nabarmeneko ezaugarriak gordetzen ditu paisaiaren aldetik, erakarmen handiko inguru batean kokatzen baititu natura gune bereziak, naturaren osagaiek jatorrizko bereizgarri gehienak gordetzen baitituzte, itsasadarraren zati batzuetan. Padurak, hareatzak, kantabriar artadiak, erreken ertzak, eta estuarioa orobat, artatu beharreko elementuak dira. Interes komunitarioko habitat batzuen laginak aurkitzen dira bertan, horietako batzuk oso bakanduak, dagoeneko, Euskal Herrian; gure erkidegoan oso hedakuntza murriztuko espezieak gordetzen dituzte; eta zeregin garrantziko bat dute hegaztien migrazioetan, espezie askok bertan aurkitzen baitute atseden hartu eta elikatzekeko babes.

Azterketa, inbentario eta lurralde antolamendurako tresna ezberdinek interes hau aitortu dute. Honela, balio hauen aitortpen gisa, *'Urolaren Itsasadarra/Ría del Urola'* espazioa Natura 2000 tokiak aukeratzeko prozesuaren lehenengo fasean aukeratu zen eta Natura 2000 Sare honetan Garrantzi Komunitarioko Leku (GKL) bezala sartzeko proposatu zen 2.003 urtean, ekainaren 10ko Eusko Jaurlaritzako Kontseiluaren erabakiaren bidez. Gaur egun, eremu hau eskualde biogeografiko atlantikoko Garrantzi Komunitarioko Lekuen zerrendan ageri da, indarrean dagoen 2.009ko abenduaren 22ko Europar Batzordearen 2010/43/CE erabakiaren arabera.

Lurraldearen Antolamenduko Artezpideek ere (LAA) "Urola ibaiaren bokalea" Interes naturalistikoak duten eremuen zerrenda irekian sartzen dute, GKL Urola itsasadarraren mugaketa berdinarekin. LAA gune honek dituen geologia, fauna, botanika eta didaktika balioak azpimarratzen ditu.

Aipatu 2010/43/CE erabakia garatzeko eta Habitaten 92/43/CE Zuzentarauak ezarritakoa betetzeko, hasierako onarpena eman zaio, besteren artean, Urolako Itsasadarra Kontserbazioko Babes Eremua (KBE) izendatzeko kudeaketa Planari, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren 2010ko abenduaren 3ko aginduaren bidez.

Aipatu kudeaketa planaren jendaurreko informazioaren epean KBE eremurako egindako mugaketa-proposamena zabaltzeko zedin eskatzen zuten zenbait alegazioa aurkeztu dira. Kontratuaren xedea den Plan Berezia idazteko fasean hauek onartuz gero, bertan sartuko dira. Zehazki, Plan Bereziaren eremuan honako guneak gehitu daitezke: Dornutegiburua, Sanbartolomebaso, Gaztandegialde/Tiloaldeko zuloa eta Garateko Gaina.

Zumaiako Udala Urola itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Bereziaren sustatzailea da, eremuan dauden ingurumen balio garrantzitsuenak babestu eta indartzeko helburu orokorrekarekin. Garatu beharreko Plan Bereziak honako edukia izango du:

1. Diagnostikoa
2. Urolako itsasadarreko eremurako helburu espezifikoaren ezarpena
3. Ekintza Plana

Plan Berezia landu eta bideratzearekin batera, herritarren partaidetzarako plana abian jarriko da.

3 UROLA ITSASADARRA BABESTEKO ETA MANTENTZEKO PLAN BEREZIA

3.1 PLAN BEREZIAREN HELBURUAK

Hasiera batean, Zumaiaiko Udalak 'Urola itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Berezia' idazteko lehiaketa zuzendu duten Baldintza Teknikoen Agirian adierazi zituen helburuak azaltzen ditugu. Helburu hauek bat egiten dute hasierako onarpena duen '*ES2120004 Urola itsasadarra/Ría del Urola*' Kontserbazioko Babes Eremua izendatzeko planak ezarritako helburu orokorrekin:

- Natur baliabideen kontserbazioa, hobekuntza eta berreskurapena.
- Estuarioaren erregimen hidrologikoa eta bere dinamika mantendu eta aseguratu, birsorkuntza lagunduz.
- Habitata eta sistemaren flora eta fauna populazioa aktiboki mantendu, hobekien daudenak babestuz.
- Azalera handitu eta funtzionaltasuna hobetu.
- Uren kalitatea bermatu.
- Landare inbaditzaileak ezabatu.
- Jolas erabilera eta hiri-presioa kontrolatu.

Plan Berezia landu ahala aurretiaz ezarritako helburu hauen baliotasuna aztertuko da, helburu orokor hauek garatuko dituzten helburu espezifikoak definituko dira eta Ekintza Planaren bitartez, Urolaren itsasadarrerako ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketak diseinatuko dira.

3.2 PLAN BEREZIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

3.2.1 Plan Bereziaren aplikazio eremua

Urola itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Bereziarentzat mugatutako eremuak 160 Ha. inguruko lurralde hedadura hartzen du eta oso nabarmenki dator bat '*E2120004 Urolaren itsasadarra/Ría del Urola*' lekuarentzako KBE zabaldu bezala proposaturiko eremuarekin, Santixoko inguruan izan ezik; bertan azterketa eremua zabaldu da Santixoko hondartza osoa barneratzeko, Getariako udalerriri dagokion eremu bat sartuz.

Bestalde, Plan Berezia egiteko lanetarako ezarritako eskala zehatzagoa izateak, KBE zabaldu bezala proposaturiko mugaketan aldaketa txikiak egin beharra eragin du. Hain zuzen ere, Urolaren itsasadarra KBE zabaldurako ezarritako mugaketa landalurreko katastroko lursailen mugetara egokitu da eta Basusta inguruan zabaldu egin da, Zumaiaiko Arau Subtsidiarioetan 'Babes Berezia' bezala sailkatuta dagoen eremu bat barne hartzeko.

Plan Bereziaren eragin esparruak 1.603.179 m² (160,3 Ha.) azalera du guztira eta ez da Zumaiaiko udalerriren barruan geratzen bakarrik, izan ere Santixo inguruan Getariako udalerriri dagokion eremu

bat (2,0 Ha.) sartu da eta Beduako meandroan Zestoako udalerriri dagozkion lurak ere sartu dira (3,72 Ha.). Plan Bereziaren eremuaren udalerrien arabera azalaren banaketa taulan laburbilduta daude:

UDALERRIA	AZALERA(Ha)	Azaleraren %
Zumaia	152,56	96,4
Zestoa	3,72	2,3
Getaria	2,06	1,3
GUZTIRA	160,32	100,0

1. Taula: Urola itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Bereziaren eremuaren banaketa udalerrien arabera.

3.2.2 Plan Bereziak antolatuko duen eremuaren deskribapen orokorra

Azalpena argitu eta ideiak antolatzeko, Plan Bereziaren eremua antolatu eta kudeatzeari dagokionez gune hauek bereizi daitezke:

1. Urolako estuarioa.
2. Urolaren itsasadarreko padura eremuak: Santixo (edo Santiago), Beduako irlak eta itsasadarraren eskuinaldea, Korta industrialdetik behera (edo Gorostiaga ingurua).
3. Santixoko hondartzako dunen sistema.
4. Estuario ez beste inguruak:
 - a. Itsasadarraren bi alboetako hegala (Artadiko artadia, ezkerraldeko artadia eta hariztiak) eta baso naturala berreskuratzeko aukera duten malda handiagoko eremuak.
 - b. Ibaiertzak eta galeriako basoa.
 - c. Oikiako ibarreko larre eta laborantza eremua.

Dokumentu honen 4. Kapituluan eremu hauek gaur egun azaltzen dituzten ingurumen balioei eta presio zein inpaktu nagusiei buruzko aurretiazko deskribapena garatu da.

3.2.3 Plan Bereziaren jarduketak: Ekintza Planaren jarduera ildoak

Garatu beharreko Plan Bereziak eremuak dituen ingurumen balio garrantzitsuenak babestu eta indartzearen irizpide orokorrari erantzuna emango dio; lehenago ere azaldu dira Plan Berezi hau egitearekin Zumaia Udalak, hasiera batean, lortu nahi dituen helburu nagusiak.

Lurralde antolamenduaz eta erabilera eta jarduerak arautzeaz haratago, Urolaren itsasadarraren eremurako ezarriko diren helburu espezifikoak lortzeko azterketa eremuan garatu beharreko jarduketa zehatzak jasoko dituen Ekintza Plana ere garatuko da.

Zumaia Udalak honako Plan Berezi hau idaztearekin lortu nahi dituen irizpide eta helburu orokorren arabera, Ekintza Plana egituratuko duten jarduera ildoak honakoak izan liteke, besteren artean:

- Natura baliabideen babesa eta kontserbazioa.
- Ingurumen hobekuntza eta lehengoratzeta.

- Paisaiaren kalitatearen hobekuntza.
- Azpiegitura beharrak edo beraien ezabatzea.
- Erabileren bateragarritasuna.
- Ondarea balioan jartzea.
- Ingurumenaren gaineko hedakuntza eta sentsibilizazioa.

Ondo azaldu den moduan, garatuko den Ekintza Plana osatuko duten jarduera ildoak Plan Bereziak berak egingo duen lurralderen antolamenduarekiko osagarriak diren tresna edo ekimen bezala ulertzen dira, Urolaren itsasadarreko ingururako ezartzen diren helburu espezifikoak lortzen lagunduko dutenak.

Testuinguru honetan, Plan Bereziaren dokumentuan jasotzen diren proposamenak lantaldeak garatuko duen lurraldearen analisiaren eta herritarren partaidetzarako prozesuan zein gizarte eragile desberdinei egindako galdeketetan lortutako emaitzen arabera egongo dira.

4 PLAN BEREZIAK ERAGINDAKO EREMUAREN INGURUMEN DIAGNOSTIKOA

Dokumentuaren 3.2.2. atalean Plan Bereziaren eremuan hasiera batean bereizten diren gune nagusiak azaldu dira, non Planaren eskutik etorriko diren proposamenik gehienak bilduko direla espero den.

Urolaren itsasadarraren inguruan zehaztutako eremuen deskribapen orokor bat aurkeztuko da, lanerako eremuak diren ingurumen balio eta baldintzatzaile nagusiak deskribatzeko xedearekin. Ulertu beharra dago hauek lehen hurbiltze bat direla Plan Bereziaren azterketa eremura, aldeztu aurreko izaera duten hausnarketak.

Esan beharra dago Plan Berezia lantzeko eginkizunen lehenengo fasea azterketa eremuaren diagnostiko zehatzari dagokiola, beraz hasierako informazio hau dagokion bezala garatuko da aipatu Diagnostikoan, Plan Bereziaren beraren zati izango dena.

4.1 UROLAKO ESTUARIOA

Urolako estuarioak gizakiaren edozein esku-hartze baino lehen zuen jatorrizko azaleraren %43 (gutxi gora-behera) mantentzen du. Esku-hartze honek orain dela gutxira arte jarraitu du, bokalearen morfologia aldatu duten jarduketekin, hala nola sarrera-dikeen luzapena (**1. argazkia**) eta Zumaia kirol-portuaren eraikuntza. Honek Santiagoko lokatz eta paduren txikitze nabarmena eragin du, kirol-portua eraiki baino lehen zuten 150.000 m² azalera egun 61.400 m²-ra murriztu delarik. Aldian behin, dragatze lanak egin behar izaten dira kanpo aldean (Balenciaga ontziolaren eta bokalaren artean), ontziolaren jarduerak nahitaez eskatzen baitu.



1. argazkia: Sarrera-dikeen luzapena Urolako bokalean

Ibilgu zinez araupetua izateaz gain, estuarioaren egoera ekologiko ona baldintzatu dezaketen beste eragin batzuk dira Urola ibaiaren eta Narrondo errekaen bidez etor daitezkeen kutsagaiak, eta estuariora zuzenean bota daitezkeen hiri eta industria isuriak. Alabaina, azken urteotan uren kalitatean hobekuntza bat nabarmentzen da, ibai arroan bezala estuarioan egiten ari diren saneamendu lanen ondorioz. Nabarmenagoa da hobekuntza hori, 2007ko otsailean Zumaiaiko (Basusta) hondakin uren araztegia lanean hasi zenez geroztik (**2. argazkia**).



2. argazkia: Zumaiaiko Hondakin Uren Araztegia Basustan, argazkiaren ezker aldean

4.2 PADURA EREMUAK

Urolako estuarioak padura eremuan mantentzen ditu itsasadarraren zenbait tokitan: Santixo (edo Santiago) (**3. argazkia**), Beduako irlak (**4. argazkia**) eta itsasadarraren eskuinaldea (**5. argazkia**), Korta industriadetik behera (edo Gorostiaga ingurua). Eremu hauetan paduretan berezkoak diren habitatek irauten dute. Honetaz hain, bada Plan Bereziaren eremuan geratzen diren zenbait gune itsas-dinamikarako errekuaratzeko aukera ere.

Aipatu padura eremu guztiak “Babes bereziko eremu” (EP) bezala azaltzen dira EAEko Hezeguneen LAPan, honako sailkapenaren arabera babes-maila desberdinarekin: Santiagoko padurak (EP1); erdiguneko irlak (EP2); itsasadarraren eskuinaldea, Korta industrigunearen bukaeratik N-634 errepidearen zubiraino, Gorostiagako betelana barne delarik (EP3)² (**6. argazkia**). Horretaz gain, aipatu zubitik gora geratzen den ezkerraldeko tarte txiki bat ere EP3 bezala sailkatua dago. Zumaiaiko Arau

² Eremu hau EP3 bezala sailkatzea zuzenbidearen aurkakotzat jo zuen EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak 2007ko urtarrilaren 12ko epaiaren bidez. Egoera honen, besteak beste, egun hasierako onarpeneko fasean dagoen EAEko Hezeguneen LAParen 1. Aldaketa ekarri zuen; bertan betelana burutu den eremu guztia “Ingurumenaren hobekuntza” bezala sailkatzea proposatzen da, zehazki “Leheneratu beharreko guneak” azpikategorian, MA2-4. Korta eremua bezala berrantolatuz.

Subsidiarioetan ere (Testu Bateratua, 2004ko martxoa) eremu hauek “Babes Berezi” bezala azaltzen dira.



3. argazkia: Padura eremua Santixon



4. argazkia: Bedua inguruko irlak



5. argazkia: Padura eremua. Itsasadarraren eskuin alde



6. argazkia: Gorostiagako Betelana

4.3 DUNEN SISTEMA

Santixo hondartzako dunen sistema kostako hareatzetako habitaten kontserbaziorako EAEko eremu natural garrantzitsuenetakoa da (**7. argazkia**). Eremuak andeatze zantzuak azaltzen ditu gaur egun, espezie exotikoek habitaten baldintzak aldatzen baitituzte eta giro hauetan berezkoa den florarentzako mehatxu bat baitira. Gainera, hondartzak sortzen dituen jolas eta aisialdi-erabilerek eragin nabarmena dute eremu honetan.



7. argazkia: Dunen sistema Santixon

Eremu hau EAEko Hezeguneen LAPak mugaturiko Babes Bereziko gunearen (EP1) baitan geratzen da, Zumaia AASStan ere honela sailkatuta azaltzen da. Eremua antolatzen duen Plan Berezia, AA.SS.tako 2. Sistema Orokorra garatzen duena (2.S.O. Duna eremua. Santixoko Hondartza), 2007. urtean onartu zen behin betiko. Adierazitako balioak kontuan hartuta, eremu hauek guztiak babes zorrotza izan beharko dute.

4.4 ESTUARIO EZ BESTE INGURUAK

- ***Itsasadarren bi alboetako hegala***, baso naturalak mantentzen dituzten gunek (Artadiko artadia, ezker aldeko artadia eta hariztiak) eta baso naturala berreskuratzeko aukera duten malda handiagoko eremuak. Kostaldeko LAPak azalera honen gehiengoa “Baso babesle” bezala sailkatzen du. Zumaia AASS eremu hauek “Babes berezi” bezala sailkatzen dituzte.



8. argazkia: Artadia

- **Ibaiertzak eta galeriako basoa (9. argazkia).** Orokorrean egoera txarrean daude, nahiz eta tarte batzuek beren egoera naturala nolabait mantentzen duten. EAEko Ibaien eta erreken ertzak antolatzeke LAPak hobekien mantentzen diren tarteak “*Lehentasunezko interes naturalistikoko guneen ertzak*” eta “*Landaretza egoera onena duten ertzak*” bezala sailkatzen ditu.



9. argazkia: Ibaiertzetako landaredia

- ***Oikiako ibarreko larre eta laborantza eremua (10. argazkia):*** Oinarri bezala duten lur alubialak duen kalitateari esker nekazaritzarako balio altua duten eremuak dira. Eremuaren zati bat “Leheneratu beharreko gunea” (MA2) bezala sailkatuta dago Hezeguneen LAPea. Eremuko gainontzeko labore-lurrak “Balio estrategiko altua” azpikategorian (Nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala kategoria) sailkatuta dago Nekazaritza eta Basoak Antolatze LAPea (Behin-behineko onarpenerako dokumentua). Zumaia AASS ere eremua “nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala” bezala sailkatzen dute.



10. argazkia: Oikiako ibarreko larre eta laborantza eremua

5 ESPERO DAITEZKEEN INGURUMENAREN GAINEKO ERAGIN NAGUSIEN IDENTIFIKAZIOA

3.1. atalean Zumaiko Udalak hasiera batean Plan Bereziarentzako proposatzen dituen helburu orokorrak jaso dira, Urolako estuarioak dituen ingurumen balio garrantzitsuenen babesa eta indartzea bermatze aldera.

Plan hau garatzen den heinean, Urolako itsasadarrerako helburu orokorrak eta espezifikoak ezarriko dira, hurrenez hurren, eremu honen antolamenduaren inguruko alternatibak proposatuko dira eta bai Urolako itsasadarrak bere osotasunean eta baita bereziki bere baitan dituen ingurumen balio garrantzitsuenek egun azaltzen duten egoera babestu eta hobetzeko beharrezkoak diren jarduketak diseinatuko dira.

Testuinguru honetan, Plan Berezi honek ingurumenaren gainean izango dituen eragin nagusiak nabarmen positiboak izango direla uste da, hala nola, Urolako estuarioaren egoera ekologikoaren hobekuntza, mehatxatutako flora eta fauna espezieen babesa, lotura ekologikoaren hobekuntza, paisaia balioan jartzea, etab. Dena den, Planak izango dituen ingurumenaren gaineko eragin nagusien identifikazio zehatza Plan Bereziarako egin beharreko IITan garatuko da, ezarritako helburu orokor eta espezifikoak, azterketa eremuaren antolamenduaren eta proposaturiko jarduketan araberakoa.

Esan beharra dago, proposatzen diren zenbait jarduera aurrera eraman ahal izateko baliteke beharrezkoa izatea luraren erosketa publikoa edota lurjabeekin zehaztutako helburuak lortzera bideratutako borondatezko akordioak lortzeko politika sustatzea. Oro har, baliabide ekonomikoen inbertsio garrantzitsuak beharko dira, hauek ondo doitu eta lehentasunak ezarri beharko direlarik.

Plan Bereziaren eremu osoa, edo zati handi bat, Habitaten Zuzentarauaren babesean garatzen den Kontserbazio Bereziaren Eremua (KBE) izatea eta, ondorioz, 16/1994 Legearen arabera Natura Gune Babestua izatea oso aukera ona da eremuaren balio nabarmenen babesa sustatzeko garaian eta gune honen kudeaketarako finantza baliabideak biltzeko orduan. Testuinguru honetan, Zumaiko Udala eragile garrantzitsua izan daiteke, ez bakarrik eremuak dituen ingurumen balioekin bateragarria den antolamendua sustatzeko, baizik eta baliabide berriak biltzeko garaian, borondatezko akordioak bultzatzeko eta Plan Bereziak proposatzen dituen helburuekin bat datorren eremuaren kudeaketa aktiboa bultzatzeko dinamizatzaile bezala.

6 PLAN BEREZIAREN ERAGINA HIERARKIA-MAILA HANDIAGOKO PLAN EDO PROGRAMENGAN

Lehenago azaldu da Plan Bereziaren eragin esparrua oso nabarmenki datorrela bat E2120004 Urolaren itsasadarra/Ría del Urola lekuarentzako KBE zabaldu bezala proposaturiko eremuarekin; 1/2010 legea, martxoaren 11koa, Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea aldatzekoa jarraiki, Natura 2000 sareko lekuak EAEko Natura Gune Babestu ere izango dira, eremua hauetan aipatutako 16/1994 Legean esandakoa bete beharko delarik, beraz honek nabarmen baldintzatuko ditu Plan Berezitik inguru honetarako egin daitezken proposamenak.

Bestalde, Plan Bereziaren eremuaren azalera handi bat udalez gaindikoak diren eta ingurumeneko eduki garrantzitsuak dituzten bi Lurraldearen Arloko Planen (LAP) aplikazio eremuaren baitan geratzen da: EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana (aurrerantzean Hezeguneen LAP) eta EAEko kostaldea babesteko eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. Honek eremuan garatu litezkeen erabilera eta jarduerak nabarmen baldintzatzen ditu, gordetzen dituen ingurumen balioen arabera.

Urola Kostako Lurraldearen Zatiko Planak (LZP), otsailaren 21ko 32/2006 Dekretu bidez onartua, zenbait gune "Interes naturalistikoko eremu" bezala sailkatzen ditu, zehazki Santiagoko hondartzaurrearen hareatza eta padura eta Beduako inguruneak. LZP honek, gutxieneko bezala, bi eremu hauen EAEko Natura Gune Babestuen sarean sartzea proposatzen du. LZP "Beste zenbait enklabe interesgarri" bezala sailkatzen ditu EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak "Landaretza egoera onean duten ertzak" bezala sailkatutako eremuak", baita eremu funtzionalean azaltzen diren artadi kantauiar garrantzitsuenak ere, horien artean Artadi eremua.

LZP honek, lurraldearen antolamendurako tresna den aldetik, Natura 2000 Sarean dauden guneak babes bereziko esparrutzat jo ditu, baina ez du beren barne antolamendua aztertzen, izan ere hori "*Plangintza bereziko tresnen xedea izango baita*". Eta honakoa gehitzen du: "*dagozkien plagintza-tresnak idazten eta onartzen ez diren artean, zona horietan egingo den edozein jardunerako edo esku-hartzerako ezinbestekoa izango da arlo horretako Administrazio eskudunaren aldeko txostena*".

Bestalde, azterketa eremuaren zati handi bat (Plan Berezirako mugatutako eremuaren azaleraren ia erdia) Itsas Bazterreko Herri Jabariaren (IBHJ) baitan dago. Bertan garatu nahiko diren erabilera eta jarduerak Kosta Legeak ezartzen duen araudiarekin ados egon beharko dira. Legeak ezaugarri eta baliabide naturalak babestu eta mantentzeko xedea aipatzen du eremu hauetan. Halaber, kostaldeei buruzko araudia aplikagarria da IBHJ babesteko zorgunean eta igarotzeko zorgunean. Biak ala biak, kostaldeei buruzko araudiak eremu hauen ezaugarri naturalak mantentzea helburutzat dituzten erabilera-baldintzak ezartzen ditu.

Orain arte aipatutako araudi guztiak eremuak ingurumenaren aldetik duen interesaren fede ematen du eta Plan Bereziaren eremuan babeserako gune eta maila ezberdinak zehazterakoan, erabilera eta kudeaketa-baldintzak ezartzerakoan eta neurrien programa proposatzerakoan aintzat hartu beharreko erreferentziako esparrua ezartzen du. Kontutan hartu beharra dago hauek guztiek Plan Bereziarekin helburu orokor berdina partekatzen dutela: eremuan dauden ingurumen balio garrantzitsuenen babesa eta indartzea.

Bai Plan Berezia lantzeko lehen fasean egin beharreko diagnostikoak, baita Plan Bereziaren IITak udalaz gaindiko eta udaleko plangintza-esparruaren eta eskumenei dagokien esparru juridikoaren karakterizazioa eta Plan Bereziaren eremuarekin zerikusirik izan lezaketen beste plan eta proiektuen deskribapena jasoko dute.

Plan Bereziaren eremuarekin lotura izan dezaketen udalaz gaindiko edo udal mailako plan, programa edo proiektuen aurretiazko identifikazio bat egin da. Osatu beharreko diagnostikoan lurralde antolaketako agiri, legez onartutako figura eta interesa izan dezaketen beste plan edo proiektu hauek azterketa eremuaren inguruan egiten dituzten ezarpen eta erreferentziak aztertuko dira:

UDALAZ GAINDIKO PLANGINTZA-ESPARRUA	
Lurralde antolaketako agiriak	Lurralde Antolamendurako Artezpideak
	Zarauz-Azpeitia (Urola Kosta) Lurraldearen Zatiko Plana
	Lurraldearen Arloko Planak (LAP)
	– EAEko Hezeguneen LAP
	– AEko kostaldea Babesteko eta Antolatzeko LAP
	– EAEko Ibaiertzen eta Erreken ertzak Antolatzeko LAP
	– EAEko Ekonomi-Jardueratarako lurzoru publikoa eta merkataritza-ekipamenduak sortzeko LAP
	– EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko LAP
	– EAEko errepideen Plan Orokorren 2. Berrikuspena (2005-2016)
	– Gipuzkoako Bizikleta-Bideen LAP
	– Trenbideen Azpiegitura Antolatzeko LAP-aren Aldaketa Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokionez
Jabetza publikoa eta babeserako jabariak	Itsas Bazterreko Herri Jabaria
	Uraren Herri Jabaria
	Bideen Herri Jabaria
	Trenbideen Herri Jabaria
	Herri onurako mendiak
Kontserbazioko Babes Eremuak	ES2120004 Urolaren itsasadarra/Ría del Urola Kontserbazioko Babes Eremua
Interesa duten udalaz gaindiko beste plan batzuk	Plangintza hidrologikoa
	Mehatxatutako espezieen kudeaketa planak
	Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarea
	EAEko paisaia berezi eta apartekoen katalogoa
UDALEKO PLANGINTZA-ESPARRUA	
Udaleko hiri planeamendua	Zumaiako Arau Subsidiarioak
	Getariako Arau Subsidiarioak
	Zestoako Arau Subsidiarioak
	Plan Bereziaren eremuko garapen-planeamendua: 2.Sistema Orokorra Garatzeko Plan Berezia (Duna eremua. Santixoko Hondartza); 7. Sistema Orokorren Plan Berezia (Kaia)
	Bedua eta bere ingurune naturala babesteko Plan Berezia (Aurrerapena)
Eremuarekin lotura duten beste plan eta proiektuak	Zumaiako udalerrian (Gipuzkoa) Urola ibaiaren padura eta ibaiertzak berreskuratzeko Proiektua. Itsasertzetako Zuzendaritza Nagusia

Tabla 2: Urola itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Bereziaren eremuan eragina izan dezaketen plan, programa eta proiektuen zerrenda.

7 ESKATUTAKO INFORMAZIOA

183/2003 Dekretuaren 6. artikulua eta 9/2006 legeak diotena kontuan hartuz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari Urola Itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Bereziaren inguruan “Erreferentzia Dokumentua” igorri dezan eskatzen zaio, honakoa jasoko duelarik:

- Ingurumenari dagokionez, IEEB azterlanean kontuan hartu beharreko estrategiak, planak eta legedia.
- Ingurumen-irizpide estrategikoak eta ingurumen-helburuen adierazleak, eta baita egoera bakoitzean ezartzekoak diren iraunkortasunaren printzipioak ere.
- Planaren eremuan ingurumenaren aldetik interesa duten elementuak eta berauek babesteko helburuak.
- Plan Bereziaren inguruan kontsultatuak izan diren beste herri-administrazio eta erakundeen erantzunak.
- Egokitzen jotzen diren beste proposamen eta zehaztapenak